



ANALISIA ETA KRONIKA

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Ariketa honek inpartzialtasun eta subjektibotasun aferei heltzen die, zeinak kronika eta analisisetan txertatuak dauden, eta erredakzioa lantzeko ere balio du.

AIM OF THE ACTIVITY

ekoizpen eta ekitaldi kulturaleri buruzko analisia idazteko gai izatea. Kronika baten berezko ezaugarrietan trebatzea.

EXPECTED OUTCOMES

Ariketa egiterako, ikasleak honakoetan trebatuko dira: Kronika eta analisisien ezaugarrietan. Analisi bat erredaktatzeko prozesuan. Irrati-testuinguruan analisi eta kronikek dauzkaten ezaugarri bereizgarrietan. Analisi bat osatzen.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Hezitzaileak oso argia eta diplomatikoa behar du izan ikasleen analisisiei buruzko feedbacka ematerakoan.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

LENGTH

Lau bat orduz, nahiz eta lanaren parte bat saioa baino lehenago egingo duten ikasleek.

MATERIALS

Papera eta bolalusak.

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Hezitzaileak taldekideei esan beharko die analisiaren lehenbiziko zirriborroa etxean idazteko. Bakoitzak analisiaren bere zirriborroa eramango du kontsulta-bilera batera, hiruko talde txoetan. Hezitzaileak bakoitzaren analisia aztertuko du, banaka, eta horri buruzko argibideak emango dizkio, beste biek entzun eta

akatsetatik ikasi bitartean. Akatsak argi aipatuko dira, horiek zuzentzeko eta lana hobetzeko argibide zehatzak emanez. Aurreko egunetan prestaturiko analisiak aurkeztuko dituzte taldekideek. Bakoitzak ozenki irakurriko du berea. Lan bakoitzari buruzko feedbacka emango dute ikaskideek eta hezitzaileak, lehenago izan dituzten beste saioetan eman diren irizpideen aipamenak eginez. Horrela, kronika bat zer den ulertu ahal izango dute. Saio honen helburua ez da ikaskideak kronika bat idazteko erabat gai izatea, kazetaritza-genero zorrotzenetariko bat baita. Irrati-esatari baten lanean subjektibotasunak daukan eraginaz jabetzea da jardueraren xedea. Interes handia pizten duen ekitaldi bat jarriko du hezitzaileak adibide gisara. Minutu bat edo bi iraungo dituen kronika bat idatzi beharko dute partaideek, eta 40 minutu izango dituzte horretarako. Ostean horiek aurkeztuko dituzte. Horiek ebaluatzeko irizpideak taldean adostu beharko dira.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

1 10 ikasleko, 1 4ko ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasuna daukaten kideekin.

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

Saiatu jarduera sinplifikatzen ikasteko zailtasunak dauzkaten kideentzat. Gustuko duten abesti bati, film bati edo telesail bati buruzko analisia idazteko eskatu. Itsutasuna edo ikusmen urritasuna daukaten kideek posta elektronikoz bidali beharko lukete aldezturik, eta denbora tarte luzeagoa eska dezake horiek ozenki irakurtzeak. Ikusi dezakeen pertsona batek irakurtzeko aukera luzatu, nahi badute.

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

PARTICIPANTS

ANALYSIS AND EVALUATION

Analisia eta ebaluaketa jardueran zehar ematen dira.

SCHEDULING

Prestakuntzaren edozein momentutan.